

Hitzaurrea



nahastu zitzaizkigun koloreak, bai. Ekaina bukaeran izan zen.

Gorriak urdinari eskua eman zion, berdeak horia lepotik heldu zion, zuriak gorriari begiarekin klik egin eta elkarrekin egin zuten bidea...

Nahasketan beltz sakon bat sortu zen. Koloreek bat egin zuten Asun Balzolak utzi egin gintuela jakin zutenean. Egun Asunen marrazkiak ikusten ditugunean kolore guztiak nahastuak ikusten ditugu baina harmonia ederrean.

Gure aldetik eskerrak eman nahi dizkiogu gurekin 12. zenbakian parte hartu izanagatik. Goian bego.

Hel diezaiogun bada orain 14. zenbakiari.

Hasteko, *Hitz eta Pitz* atalean ESKOLA LIBURUTEGIEN gainean ospatu zen mahai inguru bat biltzen dugu. Bertan hiru eskolatako liburutegi arduradun bildu ziren eta solasaldi ederraren ostean hona hemen zuek guztiontzat bertan aipatutakoa.

Ondoren, *Hitzordu* atalean GALTZAGORRI ELKARTEAK urtero antolatzen duen Liburu Gaztea Sariaren informazio guztia biltzen dugu.

Gero, *Hizpide* txokoan hiru artikulua daude liburutegien gainean egindakoak.

Lehenengoa, ASUN AGIRIANOK –Galtzagorri Elkarteko lehendakaria eta Arrasateko Liburutegiko arduradun nagusiak– idatzitakoa da. Artikuluak begiak irekiaraziko dizkigu, izan ere, isilean dauden hainbat egia biribil aipatzen ditu.

Bigarrena, ARANTZA ARZAMENDIK –Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondareko Zuzendariak– egin du. Bertan Eusko Jaurlaritzak irakurketa sustatzeko dituen hainbat programa aurkezten dizkigu, modu berean, bere ardurapean dauden liburutegien gaineko informazio interesgarria azaltzen digu.

Hirugarrena eta azkena, CONCEPCIÓN CHAOSEK egindakoa da. Concepción Donostiako Haur Liburutegiko arduraduna da. Berak egindako artikulua Haur Liburutegiei buruzkoa da eta zinez interesgarria da; liburutegien funtzionamenduz, antolakuntzaz, irakurketa sustatze lanaz... hitz egingo digu.

Segidan, *Hitzontzi* atalean liburutegiekin erlazioa duen marrazki-bilduma berezi bat prestatu dugu. Gure ilustratzaile hoberenatariko batzuek parte hartu dutelarik: JOKIN MITXELENA, ELENA ODRIUZOLA, MIKEL VALVERDE eta BELEN LUCASEK.

Jarraian, *Hitz beste* atalean betiko moduan liburuen erreseinak bildu ditugu.

Ondoren, Gonzalo MOUREk Sahara aldera bibliobus bat bidaltzeko bizitako esperientzi pizgarri eta konprometitua kontatuko digu.

Bukatzeko, nola ez, gure esker beroenak OSCAR DOMÍNGUEZi bere marrazkiek irakurketa arinagoa egingo digutelako.

Azkenik, gure zorion beroenak Behinolakide guztiok lagun dugun PATXI ZUBIZARRETARI, bere *Pantaleon badoa* lanarekin –Pamiela, 2005– Haur eta Gazte Literatura sailean 2006ko Euskadi Saria irabazi baitu. Besterik gabe, oroitarazten dizuegu horren erreseina 13. Behinolan irakurgai duzuela. Zorionak, bada, Patxi eta eutsi goiari!!!

